



Urrezko Izara

Ataunen senar emazte batzuek, gauero-gauero, bilera bat egiten omen zuten, denbora pasa. Emaztea gerriko minez gaixo zegoela ere, hor bilduko ziren lagun guztiak etxe hartan, behe-suaren ondoan.

Lagunekin batera, jentil batzuek ere etortzeko ohitura hartu zuten. Jentilak beren altxor guztiak mendiko ezkutalekuetan utzita, etxe hartan egoten ziren gustura, berriketan eta kantuan gauerdiraino.

Sartu eta berehala urrezko izara bat zabaltzen zuten, eta haren gainean eserita egoten ziren denbora guztian, kantuekin eta hitz aspertuekin gozatzen. Baina gauerdiko hamabietan, oilarrak kukurruku jotzen zuenean, izara hartu eta hitzik esan gabe, alde egiten zuten etxe hartatik jentilek.

Etxeko jaunak inbidiaz begiratzen zion urrezko izarari, beretzat nahi zuen eta ez bat eta ez bi, erabaki zuen izara ostea. Gau batean, etxera sartu ondoren, izara zabaldu zuten jentilek, beti bezala. Baina haien ezkutuan, nagusiak iltzez josi zuen izara ohe-adarretan. Gau-bela osoan, josita egon omen zen izara, beste inor konturatu gabe. Oilarrak bere orduan kukurruku jo zuen eta jentilak izara hartu ezinik, tira eta tira aritu ondoren, joan ziren, haserre gorrian.

Egun mordoxka bat igaro zen jentilak etorri gabe. Baina halako batean, agertu ziren etxe hartan berriz, opari harrigarri bat esku artean. Kordoi eder bat zen, etxeko andreari gerrian lotu eta haren gerriko minak sendatuko zituela esan omen zioten etxeko jaunari. Gau-belan, beti bezala egon ziren denak; kontu kontari eta kantuan. Baina gaueko hamabietan jentilak aienatu zirenean, bere susmo txarrak erakutsi zituen gizonak. Jentilen kordioa hartu eta emazteari ez, eta etxe ondoko intxaur arbolari lotu zion. Berehala, intxaur-zuhaitza kordoi eta guzti ezkutatu ziren, inork ez daki nora. Geroztik jentilak ez ziren berriz ere agertu etxe hartara.

Sasi Guztien Gaietik CD liburuxkan.